

Jaungoikoaren Aurkespena (A)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Bere tenplura bilatzen duzuen nagusia sartuko da.

Malakías liburutik 3,1-4

Honela dio Jaun ahalguztidunak: «Hor bidaltzen dizuet neure mandataria, niretzat bidea prestatzera. Bat-batean sartuko da bere tenplura bilatzen duzuen nagusia. Nire ituna iragarriko duen mandataria irrika duzue; horra non datorren!»

Nork aurpegi eman haren etorrera-egunari? Nork zutik iraun hura agertzean? Metala birfintzeko sua bezala, arropa garbitzeko lixiba bezala izango da.

Epaitzeko eseriko da. Zilarra eta urrea birfintzen eta garbitzen dituenak bezala garbituko ditu Lebiren ondorengoak, Jaunari opariak behar bezala eskain diezazkieten. Orduan, Judaren eta Jerusalemen oparia atsegin izango zaio Jaunari antzina bezala, lehengo garaietan bezala.

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 23, 7. 8. 9- 10 (R.: 10bc)

R.

*Jaun ahalguztiduna,
bera da aintzaz beteriko erregea!*

Ateak, zabal zaitezte!

Antzinako ateak, zaudete zabalik,
badator-eta erregea, aintzaz betea! **R.**

Nor da aintzaz beteriko errege hori?

Jauna da, indartsu eta ahaltsua,
Jauna, guduan ahaltsua! **R.**

Ateak, zabal zaitezte!

Antzinako ateak, zaudete zabalik,
badator-eta erregea, aintzaz betea! R.

Nor da aintzaz beteriko errege hori?

Jaun ahalguztiduna,
bera da aintzaz beteriko erregea! R.

BIGARREN IRAKURGAIA

Erabat bere senideen antzeko egin beharra zeukan.

San Paulo Apostoluak Hebrearrei egindako gutunetik 2,14-18

Familia bateko seme-alabak haragi eta odol bereko diren bezala, horrelaxe hartu zuen parte Jesusen ere gizakiaren haragi-odoletan, heriotzaren nagusi den deabrua heriotzaren bitartez indargabetzeko, eta heriotzaren beldurrez beren bizitza osoan esklabo bezala bizi zirenei askatasuna emateko; hura ez baitzen, noski, aingeruei laguntzera etorri, Abrahamen jatorrikoei baizik. Horretarako, erabat bere senideen antzeko egin beharra zeukan, apaiz nagusi errukitsu eta Jainkoari dagozkionetan fidagarri izateko, herriaren bekatuak barkatzeko gai. Bera ere nekeetan probatua izan delako, gauza da orain probaldian daudenei laguntzeko.

Jaunak esana.

Aleluia Lc 2,32

Aleluia, aleluia.

Nazioak argitzeko argi
eta zure herri Israelen ospe. Aleluia.

EBANJELIOA

*Ikusi dute nire begiok
zure Salbatzailea.*

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukas liburutik 2, 22-40

Moisesen legean agindutako garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaienean, gurasoek Jesus Jerusalemera eraman zuten Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela agintzen du Jaunaren legeak: *Lehen- seme guztiak Jaunari sagaratuko zaizkio*. Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini zuten: *bi usapal edo bi usakume*.

Bazen Jerusalemen Simeon izeneko bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunak bidalitako Mesias ikusi gabe. Espirituak eraginik, tenplura joan zen eta, Jesusen gurasoak legeak agintzen zuena betetzeko asmoz tenpluan sartzerakoan, haurra besoetan hartu eta Jainkoa goretsi zuen, esanez:

«Orain bai, Jauna,
zeuk hitzeman bezala,
utz diezaiokezu zeure morroi honi
bakean hiltzen!
Ikusi dute nire begiok
zure Salbatzailea,
herri guztien aurrean zuk aurkeztua:
nazioak argitzeko argi
eta zure herri Israelen ospe».

[Aita-amak harriturik zeuden Simeonek haurraz esaten zuenarengatik. Simeonek bedeinkatu egin zituen eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, ume hau israeldar batzuentzat erorbide eta besteentzat altxabide izateko ezarria dago; eztabaida sortuko duen seinalea izango da, horrela guztien asmo ezkutuak agerian geldi daitezten. Eta zuri ere saminezko ezpatak zulatuko dizu bihotza».

Bazen profetesa bat ere, Ana, Fanuelen alaba, Aserren leinukoa. Urteetan oso aurreratua zen: gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Ez zen tenplutik ateratzen, eta gau eta egun Jainkoa zerbitzatzen zuen bertan, barau eta otoitz. Une hartan aurkezturik, Jainkoari eskerrak ematen hasi zen, eta haurrari buruz hitz egiten Jerusalemen askapena espero zuten guztiei.

Jaunaren legeak agintzen zuen guztia bete ondoren, Jesusen gurasoak Galileara itzuli ziren, Nazaret beren herrira. Haurra haziz eta sendotuz zihoan; jakinduriaz betea zegoen eta Jainkoaren onginahia berekin zuen.]

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>